



3/2026 Irizpena, otsailaren 2koa Ofiziozko berrikuspena: Alkatetzaren ebazpena, erabateko deuseztasunagatik, udal bati lotuta.

Eskatzailea: Udala

Txostengilea: Hugo López López

Interesa: Erabat deusezak diren egintzak: eskubide bat eskuratzeko funtsezko baldintzen eta beharrezko baldintzen arteko bereizketa

Udal eskatzaileak ofizioz berrikusi zuen Alkatetzaren ebazpenaren bidez hartutako erabakia. Erabaki horrek kalte-ordaina aitortu zion toki-entitatean aldi baterako lanpostu bat betetzen zuen pertsona bati, betetzen zuen plaza behin betiko betetzearen ondorioz udal horrekin sinatutako lan-kontratua azkentzeagatik.

Udalaren ustez, egintza deuseza da; izan ere, eskubideak esleitzen ditu horretarako funtsezko betekizunak bete gabe (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 47. artikulua), ulertzen baitu toki-entitateko lanpostua txanda irekian, hautaketa-prozesuaren bidez (oposizio-lehiaketa) eskuratzeko ez duela eragiten interesdunari emandako konpentsazioa jasotzeko eskubidea sortzea, eta konpentsazio hori, soil-soilik, lanpostu hutsa aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuaren bidez betetzen den kasuetara mugatzen dela (Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko Legea eta Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko Foru Legea).

Nafarroako Kontseiluak behin eta berriz adierazi duen bezala, ofiziozko berrikuspena salbuespenezko ahala da, interpretazio murriztailea duena, eta, beraz, alegatutako akatsa zorrotz lehenetsi behar da. Udal eskatzaileak argudiatutako deuseztasunak (aipatutako 47.1.f artikulua) eskubidea eskuratzeko funtsezko betekizunik ez izatea eskatzen du, eta ezin izanen da horrelakotzat jo beharrezko betekizunak ez egotea edo interpretazio-akatsak egotea (Auzitegi Gorenaren doktrina).

Kontseiluak aplikatu beharreko araudia aztertu du zorrotz, hau da, Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko Legea eta Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko Foru Legea. Arau horietan hiru

hautaketa-prozesu aurreikusten dira: foru-gaikuntza lortzeko prozesu bat, txanda irekikoa eta oposizio-lehiaketaren sistemaren bidezkoa; eta bi egonkortze-prozesu, 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan gutxienez aldi baterako eta etengabe beteta egon diren plazei edo, aldi baterako, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen etengabe beteta egon diren plazei hurrenez hurren aplikatzen zaizkienak. Konpentsazio ekonomikoa aparteko egonkortze-prozesuak gainditzen ez direnean baino ez da aurreikusten.

Udal eskatzailearen plazak ez zituen betetzen egonkortze-baldintzak (2020ko abenduaren 31 baino hiru urte lehenagotik aldi baterako eta etengabe betetzea), eta, horregatik, txanda irekiko deialdian sartu zen (680/2022 Ebazpena).

Kompentsaziorako funtsezko egitatezko baldintza da egonkortze-prozesua ez gainditzearen ondorioz kontratua bukatzea, eta hori ez zen gertatzen interesdunaren kasuan; beraz, aurkaratutako 234/2025 Ebazpenak legezko oinarri gaitzailerik gabeko kompentsazioa aitortu zuen.

Funtsezko baldintza hori ez betetzeak eskubide ekonomiko bat bidegabe eskuratzea dakar, eta, beraz, APAPELaren 47.1.f. artikulua deuseztasuna dago, kompentsazioa aitortzeari dagokionez.